

MUXIKA / XVII. ipuin lehiaketa antolatu dute

Astelehenera arte dute ipuinak aurkezteko aukera haur eta gazteek

Ainara Garcia

Muxikan zenbait ekitaldi antolatu dituzte haurrentzako eta gazteentzako. Ipuin lehiaketa edota gabonetako postalen lehiaketa dira antolatutako ekitaldietako batzuk. Guzti horrekin, haur eta gazteen parte-hartzea bultzatu gura du Udalak.

Astelehena izango da ipuin lehiaketan parte hartu ahal izateko azken eguna. Muxikako Udal Liburutegiak antolatutako ekimena da. Adinaren arabera, lau maila izango dira. Umeek zein gazteek parte hartu ahal izango dute lehiaketan.

Kultura batzordeko kideez gain, Jon Lopategi eta Deunoro Sardui bertsolariek osatuko dute epaimahaia. Zenbait irizpide izan beharko dituzte kontuan ipuinik onena aukeratzeko orduan. Besteak beste, irudimena, kreatibitatea edota aurkezpena. Abenduaren 22ra arte ez dute ezaguztera emango irabazlearen izena.

Gabonetako postalak

Bestetik, zazpi urte daramatzate gabonetako postalen lehiaketa antolatzen. Irabazlearen marrazkia herritar guztien etxeetara bidaliko dute, gabon jaiak zoriontzeko asmoz.

Marrazkiaren lehiaketaz aparte, postalean agertuko den testuaren lehiaketa era badago. Marrazkiaren atalean 3tik 8 urtera arteko umeek parte hartu dezakete. Testuko atalean, oster, 9 eta 12 urte bitartekoek. Ipuin lehiaketako egun berean emango dituzte azken lehiaketa horietako irabazleen izenak ere, abenduaren 22an, hain zuzen ere.

45 umeek parte hartu dute guztira Udal Liburutegiak antolatu duen gabonetako postal lehiaketa honetan.